

noaua



Orbeldi Dantza Taldea:
“Aurtengo Inauterietan Adunako
Axeri dantzari helduko diogu”

Usurbilgo joaldunak:
“Hasieran kostatzen ziren zitzaizun
ikastea eta martxa hartzea”



Larunbat honetan, Inauteri Festa

Iritsi da mozorrotzeko garaia

GOLDWELL
ELUMEN

ileapaindegi

mistoa

Kolorazioetan teknika berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Usurbilen,
zure auto-tailerra

Etorki Ramon

Atallu
AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
DOHAJENIK IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua

EuroTaller

Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoaki@gmail.com

Turkia

IRTEERA 2023ko maiatza

Rhin itsasbidaia

IRTEERA 2023ko ekaina

NOAOA
BIDAIAK

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

ARANKA
BERRIKUNTZAK

- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak
- Gremioen koordinaketa
- Igeltseritza orokorra

Tel: 722 297 867 USURBIL

Albisteak iruditan

Militarren “bisita”



Zenbait herritarrek NOAUA!ri argazki bidez ohartarazi ziotenez, militarrek ibili ziren otsailaren 8an Usurbilen. N-634 errepidean Txikiertitik herrirantz etortzen ikusi zituzten, baita Txokoaldetik Urdaigarako bidean ere.

Laburrean

“Zaintzaren iruditeria literaturan”

Mahai-inguru hau zaintza hitzaldi zikloaren baitan antolatu da. Ostegun honetan, hilak 16, 18:00etan Potxoenean. Partehartzaileak: Katixa Agirre, Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Iratxe Retolaza. Bertaratzeko gonbidapena aurretik eskura daiteke: usurbilkultura.eus

Lau aste koronabirusaren intzidentziarik gabe

Urtarrilaren 22az geroztik 0,00ko intzidentzia du Covid-19ak Usurbilen. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak astelehenero moduan argitaratu dituen azken datuen arabera, eremu berdean gara. Urtarrilaren 2az geroztik ez dute kasu berriak identifikatu Usurbilen.

Otsailaren 25ean, 1956an jaiotakoen bazkaria

Otsailaren 25ean larunbata, eguerdiko 14:00etan elkartuko dira Lukainategi jatetxean. 1956ko kintoen bazkari honetara animatzen direnek aurretik izena eman behar dute. Bi telefono zenbaki hauetako batera deitu: 695 713 969 (Jose Fina) / 607 942 458 (Xabier).

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubidea.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubidea, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Mariñbalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Antipodetan

Egiteko modua da desberdina. Humanoagoa. Jacinda Ardern Zeelanda Berriko lehen ministroak kargua utziko zuela iragarri zuen urtarrilaren 19an eta otsailaren 7an utzi du.

Kargua uzteko arrazoiak ere aipatu zituen: “Ez dut nahikoa energia lanarekin jarraitzeko. Gizakia naiz, politikariak gizakia gara. Dena ematen dugu, ahal dugun denbora guztian. Eta orduan, ordua iristen da. Niretzat, iritsi da ordua. Uzteko unea da. Lider batek jakin behar du noiz utzi”.

Esandakoa; humanoa. Eta beste detaile bat; ez dizkiot inoiz horrelako adierazpenak entzun gizonezko agintari bati; are gehiago, gogo izpirik gabe ere hor jarraitzen dute askok eta askok.

2017an iritsi zen lehen ministro kargura 37 urterekin, Alderdi Laborista arrakastara eramanez eta munduko agintaririk gazteena bihurtuz, aldi berean. 2018an ama izan zen eta lehen ministro karguan egon bitartean erditu zuen munduko bigarren emakumea bihurtu zen, Pakistango lehen ministro Benazir Bhutto zenaren ondoren. Bi egin-kizunak normaltasunez bateratzen saiatu zen, eta besteak beste, haur txikiarekin joan zen New Yorken ospatu zen Nazio Batuen Erakundearen



“Jacinda Ardern-ek adimenez, indarrez eta enpatiarekin lideratzen erakutsi dio munduari eta askorentzat inspirazio iturri izan da”.

AINHOA AZPIROZ

“Jacinda Ardern gehiago bagenitu munduko agintarien aulkietan, mundua beste modu batera gobernatzen asmatuko lukete”

Batzar Nagusira 2018an. Hori egin zuen lehen buruzagia izan zen eta irudiak zeresan handia eman zuen.

Agintean egon den urteetan bere gobernuaren lehentasunak etxebizitzaren krisiari, haurren pobrezia eta gizarte desberdintasunei aurre egitea izan dira. 2019ko martxoan Christchurcheko meskitetako sarraskia gertatu zen —gizon zuri batek bi meskiten aurkako tiroketa burutu zuen eta 50 lagun hil eta gutxienez beste 50 zauritu ziren—. Ardern-ek

hartu zuen lehen erabakia armen jabetzaren aurkako legeak ezartzea izan zen. Egun haietan belo islamiarra jantzita agertu zen jendaurrean, enpatia erakutsiz eta gutxiengo musulmanaren mina herrialde osoko herritarren min bihurtu zuen hitz hauek esanda: “Tiroketak zuzenean eragin dien asko Zeelanda Berriko etorkinak dira, Zeelanda Berria hautatu dute euren etxe bihurtzeko eta hau da haien etxea. Haiek gu dira; gure aurkako indarkeria eraso hau, ordea, ez. Denok bat gara; haiek gu gara”.

Ekonomian adituak direnek diote Ardernen gobernuaren aurrekontuak ere desberdinak izan zirela, lehehengo aldiz herritarren ongizatea hartu zutelako kontuan eta ez hazkunde ekonomikoa. Klima aldaketaren eta indarkeria matxistaren aurkako edo osasun mentala-

ren aldeko borrokek isla izan zuten aurrekontuetan eta politiketan. Bi hitzetan esanda, aurrekontu gizatiarragoak eta jasangarriagoak.

Bere estiloaz honela idatzi dute hainbat komunikabideetan: adimenez eta indarrez lideratzen erakutsi diola munduari; enpatia lidergo ezaugarri indartsua dela frogatu dela; eta askorentzat inspirazio iturri izan dela.

Dimisioaren berri ematean, honako mezu hau plazaratu zien herritarrei: “Espero dut nire agintaldiaren ondoren herritarrek jakitea posible dela atsegina baina indartsua, ulerkorra baina irmoa, optimista baina errealista izatea”.

Ez dira oharkabeen pasatzen diren hitzak, jarrerak eta erabakiak. Ezagutzen ditugu motibo gehiagotatik dimisioa eman beharko luketenak eta oraindik agintzen jarraitzen dutenak. Egindako okerrak inoiz onartzen ez dituztenak. Pertsonak direnik ematen ez dutenak; oilarren arteko lis-karretan kateatzen direnak, kosta ahala kosta beraienari eutsiz. Eta gehienak gizonezkoak dira. Geografikoki ezezik, gobernatzeko erduan ere antipodetan gaude.

Jacinda Ardern gehiago bagenitu munduko agintarien aulkietan, mundua beste modu batera gobernatzen asmatuko lukete eta beste kuku batek joko liguke.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

lnaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@lnakiiturgintza.com - www.lnakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB
Borda Berri Kalea, 5

Agurtzane Solaberrieta Mesa, EHBilduren alkategaia

Maiatzaren 28an izango ditugun udal eta foru hauteskundee-tarako hautagaiak nortzuk izango diren ezagutarazten hasiak dira eragile politikoak. Usurbilen, EHBilduk Udalerako zerrendaburua nor izango den jakinarazi du; Agurtzane Solaberrieta Mesa, amaitzearen 2019-23 legealdi honetako alkatea. 2023-27 legealdirako koalizioako zerrendaburu gisa hautatu dute, “oinarrien babes zabalarekin”.

Usurbilgo EHBilduren esanetan, “erakutsitako kudeaketa gaitasunagatik, legegintzaldia-ri jarraipena eman, ditugun proiektuekin segi eta Euskal Herria eraikitzen jarraitzeko gure hautagaia!” izango dela berri eman dute.

Herri Programaren osaera
Usurbilgo EHBilduk datozen



Agurtzane Solaberrieta Mesa izango da EHBilduren udal hautagaia.

BERRIRO ALKATEGAI
2023-27 legealdirako
koalizioako zerrendaburu
gisa hautatu dute,
“oinarrien babes
zabalarekin”

udal hauteskunderei begira,
Usurbilgo Herri Programa osa-

tzeko tailerrak antolatu ditu hurrengo asteotarako Potxoenean:

■ Otsailak 25, larunbata
10:00 “Herri jasangarria”.

■ Otsailak 28, asteartea
18:00 “Udala herriaren zerbitzura”.

■ Martxoak 11, larunbata
10:00 “Ongizartea”.

Usurbilgo jaiak prestatzeko bigarren bilera

Herriko festak antolatzeko lanketa prozesu betean da Jai Batzordea. Otsailaren 2an egin zuten lehen saioan Santixabeletako ospakizun egunak zeintzuk izango ziren finkatu zuten. Bost egun iraungo dute jaiak, ekainaren 29an, ostegunez hasi eta uztailaren 3an, astelehenez amaituko direla berri eman diote Jai Batzordetik NOAUA!ri.



Otsailaren 16an, arratsaldeko 18:00etan batuko dira Potxoenean.

Norbanakoak nahiz eragileak elkartzen dituen bilguneak

Usurbilgo festak antolatzen segiko dute hilabeteotan; ostegunerako deitu dute bigarren saioa, hilaren 16an arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Santixabeletan ekimenen bat antolatu edota prestaketa lane-tan parte hartu nahi duten herrikide nahiz taldeentzat zabalik da Jai Batzordea. Elkargune honetan hartzen dituzte festei lotutako erabakiak.

Udal aurrekontuak, behin betiko onartuak

13.218.200 euro izango ditu herri honek 2023ko erronkei heltzeko. Diru kopuru hori biltzen duten udal aurrekontuak onartu ditu behin betiko Usurbilgo Udalak. Hasierako onespenaren ostean, jendaurrean egon den epealdian inork ez du erreklamaziorik aurkeztu.

Osakidetza defendatzeko mobilizazioak

Osasun publikoa defendatu eta bere desegitearen aurkako mobilizazio eguna iragarri dute berriz SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuak otsailaren 25ean. Hilabeteko azken larunbat horretan manifestazioak deitu dituzte EAEko hiriburuetan. Usurbildik gertuen Donostian 12:00etan Bulebarretik abiatuko dena. “Langileei, herritarrei eta gizarte mugimenduei guztion osasuna defendatzeko mobilizatzea dei egiten diegu”, egin dute gonbita sindikatuok.



Sindikatuak mobilizazio berri bat deitu dute otsailaren 25erako.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugul
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurreneka 6, Usurbil.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 19/22
20170
USURBIL

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Turkia eta Siriako lurrikaretan kaltetuentzako laguntza bilketa

Milaka heriotz eta desagertu eragin dituzten lurrikaretan kaltetutakoentzat laguntza biltzeko kanpaina abiarazi du Zaporeak irabazi asmorik gabeko elkarteak. Usurbilgo herritar talde batek deialdi honekin bat egin eta udalerrri honetan ere elkartasuna biltzeko asmotan dira, NOAUA!ri berri eman diotenez. Ostiral honetan, Mikel Laboa plazan.

“Turkiako eta Siriako lurrikarak kaltetutako errefuxiatuentzako elikagaien bilketa egingo dugu”, iragarri dute. Ostiral honetan hain zuzen, otsailaren 17an, 17:00-20:00 artean Mikel Laboa plazan, zaharberritze lanetan duten Zumetaren muralaren parean.

Eskatzen ari direna

“Zuen laguntza beharrezkoa da”, gogorarazi dute. Zer elikagai eman daitezkeen zehaztu dute baita. Honako jakiok: txerri haragirik gabeko lekaleak kontserban, arraina kontserban, arroza, pasta, esnea, haurrentzako esne hautsa, garbiketa pertsonalerako produktuak (xaboia, konpresak, fardelak...)”



Ostiral honetan egingo da bilketa, hilak 17, 17:00-20:00 artean Mikel Laboa plazan, zaharberritze-lanetan duten Zumetaren muralaren parean.

PREMIAZKO OSAGIAIK

“Txerri haragirik gabeko lekaleak kontserban, arraina kontserban, arroza, pasta, esnea, haurrentzako esne hautsa, garbiketa pertsonalerako produktuak (xaboia, konpresak, fardelak...)”

ban, arroza, pasta, esnea, haurtxoentzako esne hautsa eta baita garbiketa pertsonalerako produktuak ere (xaboia,

konpresak, fardelak...).

Diru ekarpenak

Diru ekarpenak ere egin daitezke. “Bildutako elikagaiak garraiatzeko gastuei aurre egiteko zuen ekarpen ekonomikoa ere ongi etorria izango da”. Zaporeak elkarteak dituen kontu zenbakiotan egin ahalko dira ekarpenak:

Kutxabank:

ES14 2095 5092 00 9115250322

Laboral Kutxa:

ES71 3035 0103 88 1030035880

Bizum: 00435

Idoia Torregarai: “Harpa Jotzen podkasta alaitasunaren eta pozaren txokoa izango da”

‘Harpa Jotzen’ hasiak dira, eta ez da txantxa. Idoia Torregarai herrikidearen eta Mirari Martiarena oiartzuarraren EITB-ren “poZcast” berria estreinatu dute astelehen honetan.

Umoretik nola ez, eguneroko bizimoduko gaiez ariko dira. Bi asteen behin atal bat zintzilikatuko dute EITB Podkast sailean. Estreinakoan, ‘barrea’ izan dute hizpide. “Zer nahiago dute, sexua edo barrea? Zenbat barre mota daude? Barre desegokirik ba-

dago?”, galdera hauei buruz hausnartu dute Torregarai eta Martiarenak. Gai berari tiraka, Bea Egizabal umoregilea gonbidatu dute saioaren bigarren zatira.

Hurrengo atala beraz, otsailaren 27an astelehena. Datozen saioetan, Jon Plazaola, Lorea Agirre, Manu Etxezortu, Iñigo Antsorregi, Aitziber Garmendia, Ana Galarraga eta Joxe Rojas izango dira Torregarai eta Martiarena “harpa-jotzaileen galdera gaiztoen biktimak”.



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai, harpa jotzen.

Aitor Etxeandia

Sagarrondotik

Sagardora ikastaroan

“Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa” ikastaroa antolatu du Alkartasuna Kooperatibak otsailaren 24an, 15:30-18:30 artean Potxoeanean, Aitor Etxeandiarekin. Izena aurrez eman beharko da usurbilkultura.eus eta alkartasuna.eus webguneetan edo 943 361 114 telefono zenbakian. “Kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo dira!”, ohartarazi dute antolatzaileek.

Langabetu gutxiago emakumeen artean

Abenduan baino sei langabetu gutxiago zenbatu ditu Estatuko Enplegu Zerbitzuak urte hasieran Usurbilen; 210etik 204ra murriztu da lanik gabeko herritarren kopurua udalerrri honetan. Nabarmenezko datu bat; abendutik urtarrilera gutxitze hau emakumezkoen artean izan da. Abenduan 120 langabetu emakumezko zituen Usurbilek, 110 otsailean. Aldiz, 90 gizonezko langabetu abenduan, gehiago, 94 urtarrilean.

Eskualdean aldiz gora egin du langabetu kopuruak

Eskualdean eta Gipuzkoan ugaritu egin da langabetu kopurua denbora tarte berean; 2.971tik 3.038ra eskualdean, 29.437tik 29.885era herrialde mailan.

Kontratazioek gora egin dute Usurbilen

Joera bera izan du kontratazioak ere. 224tik 257ra gehitu da erregistraturiko kontratuen kopurua, abendutik urtarrilera. Gehienak, 204, aldi baterako. Emakumezko langabetu kopurua gutxitu egin da aipatu moduan, emakume gehiago kontratatatu dira (146 gizonezkoak baino (111).

Osasun mentalari buruzko diagnositik, azaleratu diren gaien lanketara

Usurbilgo gazteen “%83ak azken urteetan bere osasun mentala artatzeko beharra sentitu du baina %55ak soilik jarri dio arreta”. Gaiak lagunartean edota familiarartean nahikoa presentzia ez duela diote. Osasun mentalarekin lotuta, harremanak, drogo-menpekotasuna, antsietatea, sexualitatea, hezkuntza gaiak jorratzeko interesa agertu du herriko gazteriak. Hauek dira nagusiki, Usurbilgo Ernai gazte erakundeak udazkenean zehar osasun mentalaren inguruan sare sozialetan eseki zuen galdetegiaren bidez jasotako erantzunetatik atera dituzten ondorio nagusiak. “Geneukan bihozkada berresteko aukera izan dugu”, adierazi diote gazte antolakundetik NOAUA!ri.

Lanketa hau abiatu zutenean hain zuzen, #ezgarakristalezkoak traola baliatu du Ernaik, eta ez alferrik. “Ez dugu sufritzen sufritzeagatik, ez gaude gaizki gaizki gaudelako, ondoez horrek arrazoi batzuk ditu; badaude beti aipatzen diren lan eta bizi baldintzak, lagun arteko harremanetako moduak, gure harreman afektibo sexualak nondik bideratzen ditugun, zer baliabide ditugun... Hor gai asko daude. Askotan ahulak garela dirudi eta



Laster hiru bat saio egitekoak dira. “Saio batzuk informatiboagoak izango dira, beste batzuk lanketa handiagoa eskatuko dute”, Ernaitik esan digutenez.

USURBILGO ERNAI

Galdetegiaren erantzunekin eta iragarri dituzten saioen ondoren “marko bat aterako da hortik”, jendartean dauden beharrak lehenetsiko dituen

halaxe aurkezten gaituzte jendaurrean. Baina badaude arrazoi batzuk belaunaldi bezala ezaugarritzen gaituztenak eta sufritzen dugu bai, baina zerbaitegatik. Sufrimendua politikoa dela esaten dugu sarritan”.

Berriki plazaratu dituzte emaitza hauek eta ekimenak

sustatu duen parte hartzea eta piztu duen interesa ikusita, egitasmo honekin aurrera egitea erabaki dute. Laster, “hiru bat saio egitea aurreikusi dugu, eskaera gehien izan duten gaien inguruan”, aurreratu diote NOAUA!ri, ekimen honen sustatzaileek. Egin duten diagnosi lanaren ostean, “identifikatu dugu zer aztertu behar dugun”. Zer nolako gaiei heldu zehaztu ahal izan dute galdetegiaren laguntzaz, eta “azterlanari” ekingo diote orain, azkenean, “nola gauden, horretara heltzeko”. Saio batzuk “informatiboagoak izango dira, beste batzuk lanketa handiagoa eskatuko dute”. Edozein kasutan, biltzen den “taldearen arabere

rako ariketa partehartzaileak” izango dituzte hitzorduak.

Estreinako saioan jorratuko duten gaia zehaztua dutela berri eman dute halere; “lehenengo saioa harremanei buruzkoa izango da, gehien aipatu den gaia izan baita”.

Marko baten sorrera

Parte hartzeko deia egin dute. “Dinamika hau aurkeztu genuenean, parte hartzeko hainbat modu zeudela berri eman genuen. Nahi duenak talde motorean esku har dezake. Saiotan ere bai noski. Denoi on egingo digu. Talde motorean egon ez ziren hainbat lagun animatu dira hitzordu hauen prestaketa lanetara”. Galdetegiarekin eta iragarri dituzten saio hauekin, “marko bat aterako da hortik”, jendartean dauden beharrak lehenetsiko dituen. Honako hau, luzatu daitekeen lanketaren abiapuntua izan daitekeela diote. “Gai eskaintza zabal honen baitan hiru landuko ditugun moduan, aurrerantzean beste talde batak har dezake iniziatiba jarraitu ematekoa”. Ekimen hau bideratzeko iniziatiba Ernairena izan arren hain zuzen, gero talde motorean gazte eragile desberdinetako kideak batu dira. Edozein kasutan, landu duten marko hau hor izango du eskuara edonork.

“Serio heldu diogu gaiari”

Historikoki osasun mentalen gaiaren inguruan egon den isiltasuna eten ote duten galdetuta, tabua hautsi baino diotenez, “serio heldu diogu gaiari, diagnosi zorrotzetik eta hori da garrantzitsua”, nabarmendu dute. “Hor dago aldaketa, tabua haustean baino. Hor dago gaia baina aldi

berean ez dago. Gaizki gaude, baina ez dakigu zer egin daitekeen, edo nondik bideratu”.

Egitasmo honek pandemia garaian gazte mugimenduak lan eta bizi baldintza duinen inguruan eginiko ikerlana du abiapuntu. Hor hainbat behar identifikatzen hasi ziren, “hastapen bat izan zen”,

Usurbilgo Ernairen esanetan. Gazte antolakundeak iaz gai hau jorratzeko iniziatiba hartu zuen. Urteotako osasun krisialdiak azaleratu du, “zaintza zer oinarritzeko den eta aldi berean elkarren zer behar dugun”. Orain, “presentzialtasun bat eman zaion gaia da”.

Lanketa honekin “oinarri

bat ezarri da eta beste eragile batzuei pausoak emateko aukera” eskainiko du honek. “Militantziaren esparrutik ere gaia baloreari jarri eta denon kontua izanda, alor honetatik ere garrantzia emateko” baliagarritzat jotzen dute bideratzen ari diren lanketa.

Ate irekien eguna Aginagako Eskola Txikian

Ate irekien eguna izan zuten larunbatean Aginagako Eskola Txikian. Datorren ikasturtean eskolan izena emateko interesa duten familia batzuk hurbildu ziren saiora eta eskola ikustez gain, funtzionamendua eta egunerokotasunaz hitz egin zuten.

Astelehenean ireki zuten 2023-24 ikasturterako HH, LH eta DBH zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeetan izena emateko epea. Udalerrri honetan Udarregi Ikastola eta Aginaga zein Zubietako eskoletan.

2023-24 ikasturterako matrikulaziorako egutegia

- Otsailak 13-24: eskabideak eta egiaztagiria aurkeztea.
- Martxoak 14: eskatzaileen zerrenda argitaratzea eta onartzeko prozesua abiaraztea.
- Martxoak 14-27: eskatzaileen zerrenda ikusgai.
- Martxoak 28: behin-behineko zerrendak argitaratzea.
- Martxoak 28-apirilak 4: behin-behineko zerrendak ikusgai. Erreklamazioak Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu edo eskabidean atzera egiteko aukera.
- Apirilak 20: behin betiko zerrenden argitalpena.
- Apirilak 20-maiatzak 22: behin betiko zerrendak ikusgai, eta hauei gora jotzeko errekur-



Jardunaldira hurbildu zirenek Aginagako eskolaren egunerokoa nolakoa izaten den ezagutzeko aukera izan zuten.

MATRIKULAZIOA MARTXAN

2023-24 ikasturterako HH, LH eta DBH zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeetan izena emateko epea zabalik da

renden argitalpena.

- Apirilak 20-maiatzak 22: behin betiko zerrendak ikusgai, eta hauei gora jotzeko errekur-

tsoak jartzeko aukera.

- Apirilak 27: Lurralde-ordezkariek esleitutako plazen zerrendak argitaratzea.
- Irailaren 15 arte: itxarote-zerrenden eta plazen erreserba-irauinaldia.

Informazio gehiagorako

- Zubietako Eskola
943 372 931
012219aa@hezkuntza.net
zubieta@eskolatxikiak.org

zubietako.eskolatxikiak.org

- Aginagako Eskola
Erriberako Kalea 7
943 372 044
012261aa@hezkuntza.net
aginaga.eskolatxikiak.org

- Udarregi Ikastola
Gernika ibilbidea, 11
943 36 12 16
udarregi.eus
usurbil@ikastola.eus

Usurbilgo Eman enpresak Naturklimaren Borondatezko Karbono Funtsaren aitortpena jaso du

Txikiardiko Eman enpresak produktuen bilgarriak diseinatu eta ekoizten ditu. “Azpiegitura sendoa eta moderno du, eta lan-prozesu zorrotzenak eskaintzen ditu”, Foru Aldundiak adierazten eman zuenez. “Gainera, ingurumenarekin konpromiso sendoa du, bezeroekiko kontzientzia komuna partekatzen du, baliabideak zentzuz eta eraginkortasunez

erabiltzen direla zaintzen du eta materialak birziklatzen aktiboki parte hartzen du”.

Eman enpresako ordezkarien esanetan, “guretzat oso garrantzitsua da gure emisioak konpentsatzea, klima aldaketaren aurkako hurbileko proiektuetan lagunduz. Gure ingurunea mantentzeko betebeharrak delakoan gaude”, adierazi zuten Emaneko ki-deek aitortpena jaso berrian.



Eman eta Gipuzkoako bederatzi enpresek jaso dute Foru Aldundiaren aitortpena.

ORIANTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

DBH-ko IKASLEEN ONARPENA 23-24

OTSAILAREN 13-tik 24-ra



Landaberri eraikina DBH 1-2
Pintore 2,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 94



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92



www.oriarte.eus

12-18 urte
DBH-Batzilergoa
Jangela zerbitzua
Euskal kultura eta
aniztasuna bultzatuz

INAUTERIAK 2023

OTSAILAK 17-18 USURBIL

Gaia: FILMAK

OSTIRALA

ORBELDI eta ZUMARTEREkin,
Adunako Axeri dantza
Inauteriak dantzan
19:00 kalejira
Kiroldegitik abiatuta
20:00 emanaldia
frontoian.

LARUNBATA

12:30 ORBELDIREKIN
DANTZA!!!! frontoian
12:30 - 14:00 JOALDUNAK
kalean zehar
18:00 BURRUNBAZALE
txarangarekin kalejira.
23:00 Fan&GO erromeri
taldearen emanaldia frontoian

noa

zumarte
zuzenbide musikako eskola



Zumeta eta bere ondarea omentzeko urtea

Jose Luis Zumetak 1973an sortutako frontoi atzealdeko horma-irudiaren 50. urtemuga ekimenetan murgilduak gaude. Igandean aurkeztu zituzten lerrootan protagonista dugun artelanaren parean. “Ez genuen oharkabea pasatzerik nahi”, adierazi zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak.

Antolatu dituzten ekimenen bidez, Zumetaren muralak “Euskal Herriko artelan esanguratsuenen artean leku propioa izatea nahiko genuke”. Horretarako arrazoirik ez baita falta. “Horma-irudi hau arrazoi askorengatik Usurbilgo herriaren erakusleihu eta altxor nagusietakoa da gaur egun, Usurbilgo irudirik ikonikoenetariko bat, eta nola ez, irudi ikusgarrienetariko bat. Urteurrenaren antolakuntzan, eskuz esku aritu gara Zumeta Arte Estudioarekin, Usoa Zumetarekin eta “650 Usurbil Bizi” proiektuaren dinamizatzaile lanetan aritu den Jon Maiarekin. Egitarau mardula antolatu dugulakoan nago”.

“Usurbil, museo ireki bat”

Muralak eta bere egileak herri honekin izan duten harreman estua goraiatu zuen Solaberrietak. “Ezin da Usurbil ulertu Zumetarik gabe”.



Zumetaren horma-irudiaren 50. urteurrenean, murala eraberritzen hasi dira eta hainbat ekitaldi egingo dira.

JON MAIA

“Zumetaren mundu artistikoa osagai ezinbestekoa da gure herri iruditerian, bere obra izengabeek Usurbilgo eta usurbildarren bihotza okupatu dute”

Bere ibilbidean zehar, 1939an Txokoaalden jaiotako artistak “bere apalean arrasto itzela utzi du” mundu zabalean “eta zer esanik ez Usurbilen, gure herriaren izaerari arnasa emateraino. Zumetaren mundu artistikoa osagai ezinbestekoa

da gure herri iruditerian, bere obra izengabeek Usurbilgo eta usurbildarren bihotza okupatu dute. Bat aipatu behar bada, haxe da, atzean dugun murala eta aurrean dugun Mikel Laboa plaza”.

Udalaren enkarguz sortu zuen artelan hau 1973-74 urte artean. “Txalotzekoa da ezbaierik gabe orduko udalbatzak, frankismoaren urte gogorrean euskal artearen eta euskal kulturaren alde egindako apustu hura, bai orduko Udalak, orduko herritarrek, eta orohar, Usurbilgo herriak”.

Horren guztiaren isla dugu

egun, herria bera. “Usurbil, museo ireki bat da”, nabarmendu zuen alkateak. “Usurbilek euskal sorkuntzarekin izan duen eta gaur egun duen harreman eta konpromisoa erakusten dute gure kaleek. Euskal kultura arnasten da gure kaleetan”.

Bideratzen hasi diren “650 Usurbil Bizi” egitasmoarekin ere hau guztia balioan jarri nahi dutela azpimarratu zuen. “Usurbilek duen identitatean, baloreetan, ondarean eta proiektu eraldatzaileetan oinarritutako eskaintza bat proposatzen du, “650 Usurbil Bizi” proiektuak”.

“Urteurren honek zauriak sendatzeko aukera emango digu”

“50 urte artelan publiko hau sortu zela, Euskal Herriko artelan publikoen mapan nabarmentzeko momentua da”. Hala adierazi zuen Jose Luis Zumetaren alaba Usoak.

Nabarmentzeko egitasmo ezberdinak abiaraziko ditu Zumeta Arte Estudioak eta Usurbilgo Udalak. Bat, dagoeneko begi bistan duzuen, abian diren kontserbazio lanak. “50 urteren ostean age-

rikoa da murala oso ondo dagoela, baina urteurren honek mural honek dituen zauriak sendatzeko aukera emango digu. Ea gai garen denon artean zaintzeko, beste 50 urte iraun dezan”.

Lanok Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduko ditu. Diputazioak ere esker onez hartu du egitasmo honetan parte hartzea eta “bidea elkarrekin egitea”, nabarmendu zuen

Mari Jose Telleria kultur arloko foru diputatuak otsailaren 12ko agerraldian.

Esker onez hartu zuen muralaren 50. urteurreneko ekimenak herriarekin soilik ez, “zuen izan den proiektua gipuzkoar guztiarekin partekatu nahi izatea”. Sortze lan honen bidez oroitu den egilea, usurbildarra izan eta Telleriaren esanetan “hemen hala sentitu duzuen” arren, “gipuzkoarra

ere sentitzen genuen”. Foru Aldundiko ordezkariak nabarmendu zuenez, “gutxi ziren erakusketak edonon antolatzeko prestasuna” agertzen zuten artistak, edota erakusketak zabaldu eta “bere lanek eragiten zuten zirrara eta ikusmina azaltzeko bizilagunekin solasaldi bat” izaten zuten sortzaileak. Zumeta zen haietako bat Telleriak oroitu zuenez.

Zumetaren inguruko bi erakusketa iragarri dituzte

Kontserbazio lanez gain, apirilaren 28tik maiatzaren 15era Sutegin muralaren sortze prozesua azalduko duen erakusketa iragarri dute. “Muralaren prozesu osoa iruditan ikusteko aukera izango dugu. Izan ere, Antton Elizegiren argazkiak prozesu horren testigantza ezinhobeak dira. Horrez gain, besteak beste, garaiko dokumentazioa, publikazioak...” ere ikusgai izango ditugu. 2017an artista usurbildarrari eginiko elkarrizketa ere entzuteko aukera izango da. Eta adi, “muralaren jatorrizko bozetoa, olio bat, estreinakoz ikusteko aukera izan dut eta altxor hori ere hemen izango da apirilean”.

Bigarren erakusketa bat ere antolatzekotan dira, irailaren 29tik urriaren 15era. “Zumetak Usurbilekin izandako harremana uztartuko du, zentzu plastiko batean”.

Bi ekimenon bidez, Usua Zumetak azaldu zuenez, “parada emango digute Zumetaren abstrakzioetik figuraziorako bidea aztertzeko”. Erakusketa hauek “bi urteko ikerketaren ondorioz bildutako hainbat argazki, dokumentu eta artelane osatuko dute”.

Zumeta erraldoi bat Usurbilen
“Hormaren mintzoa” da ira-



“Muralaren prozesu osoa iruditan ikusteko aukera izango dugu”.

USOA ZUMETA

**Erakusketa hauek
“bi urteko ikerketaren
ondorioz bildutako
hainbat argazki,
dokumentu eta artelane
osatuko dute”**

garri duten beste egitasmoetako bat. “Bideo pieza artistiko batzuk grabatuko dira hemen, horma-irudia protagonista bezala harturik eta Euskal Herriko artista izen garrantzitsuek parte hartuko dute”, berri eman zuen “650 Usurbil Bizi” egitasmoaren dinamizatzaile Jon Maiak.

Grabazio hauen bidez,

“horma-irudia gizarteratzea da” nahi dutena “eta Usurbilgo mugetatik harago zabaltzea eta ezagutzera ematea”. Ildo bereetik, bigarren hitzordu bat ere iragarri zuen Maiak. Udan muralaren parean ospatuko den jaialdia, “horma-irudia bera protagonista harturik”. Herriko artista, sortzaile eta kultur eragileek parte hartuko dute.

“Zumetaren koloreak, Euskal Herriaren kolore nagusietakoak”

Ekimenon bidez, Maiak nabarmendu zuenez, “denon artean horma-irudi hau gozatzeko aukera zabaltzea, hori da gure funtzioa” eta modu horretan “dagokion lekuan ja-

ri Euskal Herriaren artelane lehen lerroan eta erakusleihu nagusian”. Eta etorkizunera begira, “gure identitatearen, kulturaren, artearen eta gure adierazpen artistikoaren transmisioak iraun dezan, gutxienez beste 50 urte eta askoz ere gehiago”.

Bat datoz erabat egitasmo hauek guztiak “650 Usurbil Bizi” proiektuarekin. Bere abiapuntuan, Maiak oroitu zuenez, “hasi ginenean zer eskaini diezaiokeen Usurbilek Euskal Herriari eta Euskal Herritik kanpoko edonori” argi izan zuten segituan; “Zumetaren murala agertzen da lehen lerroan. Zumetaren koloreak Euskal Herriaren kolore nagusietakoak dira zalantzarik gabe eta gure identitatea islatzeko ezaugarriak identifikatiboetakoak dira Zumetak utzi dizkigun forma eta kolore horiek, hainbat euskarrietan ezagutu ditugunak; hainbat diskoetan, margolanetan, irudietan...”.

Modu horretan, “Euskal Herriaren identitatearen parte esentziala bihurtu da, Zumetaren forma eta kolore oro. Eta horietan altxorra baldin bada, go, eta gainera denon eskura, denon begien aurrean, hauxe da, Zumetaren murala. Bere dimentsioengatik, kolore eta forma leherketagatik Zumeta erraldoi bat du Usurbilek”.

“Sentsibilitatez, txukun eta errespetuz jokatu nahi dugu”

Pare bat hilabetez edo luzatuko dira horma-irudiaren kontserbazio lanak eta zereginotan ariko da Ártico enpresa. “Sentsibilitatez, txukun eta errespetuz jokatu nahi dugu material bakoitzari bere egonkortasun fisikoa eta edertasuna berreskuratzeko behar duen sendotasuna emanez, bakoitzari behar duen neurrian noski”, adierazi zuten

Ártico-ko kideek.

Zumetaren muralak mende erdi honetan denetariko baldintza klimatiko gogorren edota “kutsadura eta inguruko obra txikien” eragina pairatu du. “Gaitz horien guztien eraginez, arrakalak eta urratuak egin zaizkie azulejoei eta zinkinkeria pilatu da bertan”. Puskatatzuk ere galdu dira ikusi ahal izan dugunez. Klean aire librean egon dira bai, baina

“uste dugu ondo eutsi diotela denboraren joanari”.

Euskal kulturarekiko begirunea

“Zumeta” izeneko diskoa kaleratu zuen urte amaieran Mikel Telleria kantariak, 2020ko apirilean zendutako aipatu usurbildar artistari eskainitakoa. Izenburu bera daraman kanta jo zuen, otsailaren 12ko aurkezpen ekitaldiren amaieran. “Konpontzen

ari zareten mural zoragarri horren aurrean Zumetari kantu bat eskaintzea pozgarria da”, adierazi zuen Telleriak abesten hasi aurretik. Deigarritzat jo zuen “kanpotik ikusita, Usurbilgo herriak euskal kulturarekiko zer nolako begirunea duen. Nola zaintzen duen bere artea, ondarea, euskal artistak... Segi horretan eta bejondeizuela!”.

Orbeldi Dantza Taldea: “Aurtengo Inauterietan Adunako Axeri dantzari helduko diogu”

Inauterietan, urtero legez, Orbeldi Dantza Taldeak emanaldia eskainiko du frontoian Inauteri jaien bezperan. Aurtengoan Adunako Axeri dantza egingo dute Zumarte Musika Eskolakoek lagunduta. Larunbat goizean, berriz, frontoian dantza egiteko aukera eskainiko dute haiekin batera.

NOAUA! Adunako Axeri dantza eskaintzekoak zarete aurtengo Inauterietan, zer dela eta?

Orbeldi Dantza Taldea: Urtero Inauterietako dantzak hautatzen ditugu. Iaz Uztaritzeko Inauteriak hartu genuen gaitzat eta aurtengo Gipuzkoako ohituretan geratuko gara eta Adunako Axeri dantzari helduko diogu. Hiru Axeri dantza desberdin daude: Hernani, Andoain eta Adunakoa. Aduna eta Andoaingoak nahiko antzekoak dira, baina Hernanin beste modu batera egiten dute; azken horrek dantzatik askoz gutxiago dauka. Adunako estiloa aukeratu dugu kasu honetan. Inauteriak baino astebete edo bi aste lehenago egiten dute Adunan Axeri dantza. Adunan baserriz baserri joaten dira kalejiran eta Andoainen emanaldia egiten dute. Guk baserrietara joan beharrean, herriko kaleak hartuko ditugu.



“Hiru Axeri dantza desberdin daude: Hernani, Andoain eta Adunakoa. Azken hau hautatu dugu”. 2017an ere Axeri dantza eskaini zuten Inauteri Festan. Argazkia ordukoa da.

ORBELDI DANTZA TALDEA

“Zumarte Musika Eskolako dozena bat irakasle musikaz arduratu dira eta ostiralean gurekin arituko dira zuzenean”

gu. Amaieran, ekitaldia egingo dugu frontoian. 6 dantza izango dira.

Zumarte Musika Eskolako mu-

sikariak izango dituzue lagun ibilbidean eta ekitaldian.

Bai, Zumarte Musika Eskolako irakasleak arduratuko dira musika jartzeaz. 12 bat irakasle izango ditugu gurekin eta haiek dantzen melodiak moldatzeaz arduratu dira eta ostiralean gurekin arituko dira.

Orbeldi Dantza Taldeko txikiak ere parte hartuko dute ostiraleko saioan edo helduak bakarrik igoko zarete oholtzara?

Helduak aterako gara. Helduen

hiru talde ditugu egun taldean, baina horietako bi aterako dira Inauterietan. 25 dantzari inguru izango gara, hala ere. Adin talde askotako jendea elkartuko gara, 16 bat urtetik hasi eta 50 bat urte bitarteko dantzariak izango ditugu. Taldean orain joan zen urteetan baino jende gehiago gaude, pandemiaren jipoia nabaritu genuen, baina orain berriz ere jendea gogoz guregana inguratzen hasi da. Jende dezente bueltatu da taldera eta berriak ere sartu zaizkigu.

“Plazaratzen ditugun jantzi gehienak gureak dira”

NOAUA! Azken urteetan leku askotako dantzak egin dituzue herrian eta jantzi pila bat plazaratu dituzue. Nondik ateratzen dituzue horrenbeste jantzi ezberdin?

Orbeldi Dantza Taldea: Kapitain bat egongo da dantza honetan, eta Adunan zahagia eramaten badute ere guk gerriko gorri bat erabiliko dugu. Gainontzekoek blusa gorri

bat eramango dute, mahoizko galtzak, alpargatak eta buruan koloretako zapi bat. Orbeldin jantzi pila bat daukagu gure biltokian. Garai batean Lasarten dantza talde bat bazen, duela 20 bat urte edo, Orbeldi oraindik existitzen ez zen garaian. Usurbilen bazuten talde hartako ezagunen bat eta haien jantzi guztiak herriko dantza taldearen lokalean jaso zituz-

ten. Usurbildarrek hartu izan ez balituzte bota egin beharko zituzten lasartearek. Azken bost edo sei urtetan, Orbeldin jostun talde bat daukagu aipatutako jantziak txukuntzeko, aldatzeko eta berritzeko. Ateratzen ditugun jantzi gehienak gureak dira. Batzuetan, Inauterietako Axeri dantza kasu, jende asko ateratzen gara eta ez daukagu horrenbeste jantzi.

Beraz, beste dantza talde batzuei eskatu behar izaten dizkiegu traje batzuk. Dantzak jatorrizkoen ahalik eta antzekoenak egiten saiatzen gara, eta horrekin batera, jantziak ere berdinak izaten saiatzen gara. Gipuzkoako dantzak egin eta Bizkaiko trajearekin ateratzeak ez du zentzurik, dena lotuta dago eta koherente izaten saiatzen gara.

“Helburua ez da soilik dantzak erakustea, baizik eta hurbildutako jendeak ere parte hartzea”

NOAUA! Larunbat goizerako deialdia luzatu duzue frontoian mozorrotuta dantza egiteko. Zein da ideia?

Orbeldi Dantza Taldea: Ostiraleko emanaldia helduekin egiten dugu eta larunbatekoa, aldiz, gazte eta umeei zuzendutakoa izaten da. Taldean gehiegi gara denok batera zerbait egiteko, eta horregatik, bi egunetan bantzen dugu. Duela hiru urte edo, zerbait egiten hasi ginen umeei. Dantza batzuk sortzen genituen eta gero, plazan erakusten genituen. Aurten zerbait ludikoagoa egiten saiatuko gara. Orbeldiko haurrekin jokoak egingo ditugu herrian zehar eta gero, 12:30ean frontoian, joko horien bidez sortutako dantzak aurkeztuko ditugu. Helburua ez da soilik dantzak erakustea, baizik eta hurbildutako jendeak ere parte hartzea. Norbaitek dantzaren bat prestatuko balu edo musika ekarri edo dena delakoa, prest egongo ginatke denok batera dantzatzeke.

Tradizionalki Inauteriak eta dantza lotuta daude, hau da, duela hainbat urte Inauterietan dantza egitea tradizioa zen?

Bai. Ohitura ezberdinak daude



Dantzaren bidez euskal kultura plazaratzea da Orbeldiren helburu nagusia.

LARUNBAT EGUERDIAN

“Orbeldiko haurrekin jokoak egingo ditugu eta joko horien bidez sortutako dantzak aurkeztuko ditugu 12:30ean frontoian”

eta herri edo zonalde bakoitzean aldatu egiten da. Baserri baserri eskean ibiltzen ziren leku askotan hemen San-

tixabeletan oilasko biltzaileak izaten diren bezala. Lanzen edo maskaradetan egiten dena ere oso antzeko kontua da. Herriz herri joaten dira leku horietan eta jaten zein edaten ematen diete, eta arratsaldean ikuskizuna egiten dute. Leku guztietan dago abestia, dantza eta antzerkia uztartzen dituen tradizioen bat. Inauteriak jai giroko ohiturak dira eta beraz, elementu horiek festa giroa

sortzen dute.

Herri askotan egiten dira Inauteriak eta leku batzuetan beste batzuetan baino pisu gehiago badu ere, dantza tartean izaten da. Usurbilen ez geneukan dantzari lotutako ohiturarik, mozorrotu eta kalera ateratzea zen tradizioa. Orbeldin duela urte batzuk hausnarketa egin genuen gai honi buruz eta zerbait propioa sortzea pentsatu genuen. Inguruan ditugun Inauterietako dantzak ekartzea erabaki genuen eta badira urte batzuk hori egiten dugula. Egunen batean gustatuko litzaiguke herriko eragileen artean zerbait sortzea gurea izango dena, zerbait berezia. Dantzaren bidez euskal kultura plazaratzea da gure dantza taldearen helburu nagusia eta Inauteriek ere badituzte dantzak leku askotan.

Otsailak 17, ostirala

Orbeldirekin, Axeri dantza

■ 19:00 Orbeldi dantza taldea eta Zumarte musika eskolarekin, kiroldegitik abiatuta.

■ 20:00 Emanaldia frontoian.

Otsailak 18, larunbata

Inauteri Festa

■ 12:30 Orbeldirekin dantza taldea frontoian.

Udarregi ikastolako ikasleen ikuskizunak

Otsailak 17, ostirala

Udarregi Ikastola

■ 10:30 HHkoen dantza saioa Mikel Laboa plazan.

■ 11:00 DBHko eta LHko ikasleen desfilea kaleetan zehar.

■ 11:45 DBHkoen dantza ikuskizuna Kiroldegian.

■ 15:00 LHkoen dantza ikuskizuna Kiroldegian.

■ Kiroldegiko emanaldieta-rako oharrak:

- Ikus-entzuleak zelai ondoko arrapatatik sartuko dira.

- DBHko ikuskizunerako sarrera librea izango da.

- LHko ikuskizunerako ikasle bakoitzari txartel bat eman go zaio. Soberan daudenak www.udarregi.eus web orrialdearen bidez eskuratu behar dira, eta egunean bertan jaso 12:30etik 14:30ak bitartean, Udarregi Ikastolako idazkaritzan.



Udarregiko mozorro festa ostiral honetan izango da, Oiardo kiroldegian.

“Joaldun mota ezberdinak daude munduan barrena, baina denak basoko animaliei lotuta daude”

Inauteriak gainean ditugu eta asteburuan herria zinema erraldoi bihurtuko da. Eguerdian, joaldunak aterako dira zintzarri soinuekin herriari Inauteri giro gehiago ematera. Joaldun taldeko Jokin Eizagirrekin, herrian Txitxo modura ezagutuko dute askok, izan da NOAUA! joaldunen eta Inauterien tradizioaz gehiago ezagutzeko.

NOAUA! Joaldunak Inauteri Festan aterako zarete larunbat eguerdian. Euskal Herriko Inauterien tradizioan funtsezko elementu dira. Zein da pertsonaia hauen funtzioa?

Jokin Eizagirre (Txitxo): Inork ez daki ziur pertsonaia hauen jatorria zein den. Batzuk esaten dute sorginak uxatzea zela euren helburua, beste batzuk lurra esnatzeko. Hala ere, benetan ez dakigu zergatik eta non sortu ziren edo ez dago, behintzat, teoria tinko bat. Inauteriak eta joareak mendikateen inguruetan antolatutako Europako hainbat herritan daude: Asturiasen, Pirinioetan, Italian, Suitzan... Joaldun mota ezberdinak daude, baina denek badute zerbait amankomunean, denak basoko animaliei lotuta daude: hartza, oreina, otsoa, azeria... animalia hauek lotura zuzena dute. Nik ikusten dut



“Europako hainbat txokotan daude joareak eta denak oso antzekoak dira”, Jokin Eizagirrek adierazi digunez.

JOKIN EIZAGIRRE

“Inork ez daki ziur pertsonaia hauen jatorria zein den. Batzuk esaten dute sorginak uxatzea zela euren helburua, beste batzuk lurra esnatzeko”

halako logika bat urte sasoi honi eta animalia hauei lotuta. Herri hauek menditik gertu daude eta joareek inguruan dituzten animalien larrua jantzten dute dela ahuntzarena, dela ardiarena. Harrapatu duten animalia presa modura zintzilik eramaten dute har-

tza, otsoa edo dena delakoa. Nik elementu hauen artean lotura bat ikusten dut. Piztiak ardiak, ahuntzak, behiak edota abereak jaten zizkieten biztanleei. Beraz, biztanleek abereak bezala jantzita eta joarea jarrita izugarritzko zarata eginda uxatu nahi zituzten. Abereen larruarekin jantzita haien usaina eta itxura hartzen zituzten, eta hala beldurtu. Europako hainbat txokotan daude joare hauek eta denak oso antzekoak dira. Batzuek joaren handiagoak dituzte besteek baino, baina taldean elkartzen dira soinua egiteko. Italian “mo-

tonis” izena dute, Suitzan kanpaia handi batzuekin desfileak egiten dituzte eta Kantabrian korrika ibiltzen dira moxorroa jarrita. Inauteriekin lotura dute denek eta elementu asko partekatzen dituzte zuntzurrua, oilarraren isatsa, zaldia eta ardia biltzen dituzte jantziek. Duela gutxi arte animalia ehi-zatu berriak zintzilik jartzen zituzten Zubieta eta Iturenen. Gerora hori debekatu egin dute edo jendeak kexa agertu du eta desagertu egin da. Aitzinatik gordetako ohiturak dira nola-bait. Nik lotura edo logikotasun hori ikusten diot.

“Hasieran kosta egin zitzaigun ikastea eta martxa hartzea”

NOAUA! Badira urte batzuk joaldun taldetxoak osatu zenu-tela herrian. Nolatan bururatu zitzaizuen horretan hastea?

Jokin Eizagirre (Txitxo): Bost bat urte izango dira. Hasieran asko kosta zitzaigun ikastea eta martxa hartzea. Duela urte batzuk Usurbilgo Inauterietako gaia “Euskal Herriko pertsona ezagunak” izan zen, 2018an, hain zuzen. Orduan erabaki

genuen moxorro bikaina izan zitekeela joaldunez moxorrotzea. Ezagun batek Zumaian joaldun talde bat bazela esan zidan. Haiekin harremanetan jarri ginen, oso material garestia baita.

Nola ikasi zenuten teknika?

Lezoko talde batekin hasi ginen ikasten 2018ko Inauteri haietarako. Taldetxo bat elkartu gi-

nen eta hiru edo lau entsegu eginda atera ginen. Pixkanaka aurrera jarraitu dugu eta gaur arte. Denek erritmo eta tempo bera eramatea ez da erraza. Kolpe bakoitzak neurri bat du, eta horrekin batera, pausoak ere kontrolatu behar dira. Hori dena denek berdin berdin egitea lan zaila da. Joareak gora egiten duenean, barruko adarrak ez luke goia jo behar; erdiraino igo

eta beherakoan jo behar du behean. Hori ez bada ondo egiten, goian ere jo egiten du eta soinu bikoitza sortzen du. Bere teknika du honek. Zubieta eta Iturenen umetatik erritmo horiek barruan sartuta dauzkate, gorputzaren postura jartzen ere badakite eta hori dena antzematen da. Oso polita eta ikusgarria da haiek egiten dutena.

“Ikasten hasten zarenean gorputz guztiak minduta edo abailduta bukatzen du”

NOAUA! Ordu eta erdi ibiliko zarete herrian barrena. Bizkarrean eramaten dituzuen joareak oso handi eta pisutsuak dira.

Jokin Eizagirre (Txitxo): Ikasten hasten zarenean gorputz guztiak minduta edo abailduta bukatzen du. Tentsio handia jasaten du gorputzak eta hor zabiltza oso ondo zertan zabiltzan jakin gabe. Izterretako mina jartzen da eta bizkarrak ere asko sufritzen du. Zeure buruarekin nahiko lan izaten duzu eta gainontzekoekin koordinatu nahi izate horrek buruhaustea sortzen ditu. Denborarekin ikasten den zerbait da. 12 bat kilo eramaten ditugu soinean joarea eta arropa kontuan hartuta. Teknika ondo ikasita ez du horrenbeste pisatzen eta gorputzak ez du horrenbeste sufritzen. Neke-tsua da hasiera horretan eta denbora asko eman behar bada aldapan gora eta aldapan behera nekea sortzen du.

Entseguak egiten dituzue?

Azken bi edo hiru urtetan ohitura hartu dugu Usurbilen urtean lau saio egiteko: Inauterietan, festetan, Santueneko



“Joarea zintzarria da eta txapelari zuntzurroa esaten zaio”.

JOKIN EIZAGIRRE

“12 bat kilo eramaten ditugu soinean. Teknika ondo ikasita, gorputzak ez du horrenbeste sufritzen”

festetan eta Olentzerorekin. Jendea aspertu ere ez dugu egin nahi, eta lau momentu horiek urtean zehar ondo banatuta dauzkagu. Lau saio horien aurretik egiten ditugu entseguak. Normalean, beti izaten dugu norbait berria inoiz probatu ez duena edo oso gutxitan aritu dena eta haiekin pixka bat prestatzen dugu saioa. Bi

edo hiru entsegu egiten ditugu saioen aurretik. Gonbidapena luzatu nahiko nieke atentzioa deitzen dieten guztiei gurekin entseguren batean parte hartzera.

Joaldun guztiek bizi diren zonaldearen arabera ez omen dute soinu bera egiten.

Ituren eta Zubietan artean bada auzo bat Auritz izeneko, eta bertan bi kolpe egiten dituzte, goian eta behean. Beste pauso bat dute haiek. Zubietan eta Iturengo joaldunak bertatik pasatzen direnean pauso hori egiten dute. Zubietan eta Iturengoek izan dezakete aldea euren artean, baina ez da ia

bereizten. Horiez gain, Euskal Herrian talde asko daude, baina horietan ezberdintasuna nabari da kalitate aldetik.

Zuen kalitatea nolako da?

Gu orain 6-8 lagun gara taldean eta esango nuke kale estuan nahiko txukun ibiltzen garela. Kale estuan oihartzunak asko laguntzen du eta akatsak gutxiago antzematen dira. Pixkanaka hobetzen ari gara eta konturatu gara bost urte hauetan ikasi dugula pixka bat. Pertsona batzuek oso erraz hartzen dituzte erritmoa eta postura, baina beste batzuei gehiago kostatzen zaie. Gero taldearekin koordinatu behar.

Joaldun, joare edo zanpantzar, zein izen erabiltzen duzue zuek?

Joaldun edo joare esaten zaie bizkarrean eramaten duten zintzarri handi horrek joare izena duelako. Beraz, joarea zintzarria da eta txapelari zuntzurroa esaten zaio.

Otsailak 18, larunbata

Inauteri Festa

■ 12:30-14:00 Joaldunak kalean zehar.

Euskal Inauterietako ohitura berri zuten Zubietan

‘Euskal Inauteriak’ ekitaldiaren bitartez Zubietan eta Lasarte-Oria senidetzen dira. Badu beste ezaugarri bat ere: Inauteri Festa baino aste bateko lehenago egiten da. Aspalditik datorren ohitura da. Pandemiak eragindako etenaldia eta gero, txantxoak kalejirak garai bateko itxura hartu zuen.

Zubietatik abiatu eta Lasarte-Oriako kaleetan barrena ibilaldi bat osatu eta gero, Okendo plazan amaitu zen

‘Euskal Inauteriak’ ekitaldia. Eguraldia lagun, dantzari kua-drilla giro ederrean aritu zen kalejiran. Hori bai, zubietarrak beste urte batzuetan baino gutxiago izan dira aurtengoan.

Txantxoak izan ziren hortaz, aurreko asteburuko protagonistak. Larunbat honetako Inauteri Festan ordea, zinema eta zinemaren ingurukoak izango dira nagusi Usurbilen. Hori baita aurtengo mozorro festarako hautatua izan den gaia.



Txantxoak izan ziren aurreko asteburuko protagonistak.

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2023

Otsailak 24, OSTIRALA

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA ETA
ONGARRIKETA.
Aitor Etxeandia

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea

Kimaketa
praktikak
bertako
sagastietan
egingo dira!



SARRERAK: aldeztu aurretik
usurbilkultura.eus plataforman edo
www.alkartasuna.eus



noqua



Askorako eman dute 25 urtek,
1996. urtean usurbildar askoren
inplikazioari esker izugarritzko
bultzada izan zuen Noaue
Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herriak egiteko bultzada
jaio zen usurbildarren bihotzetik
eta eskuz esku mantendu
da indar hau denbora guzti
honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herriak egiten
jarraitzeko erronkan parte hartzea animatu nahi zaitugu.

**40€
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!
25 € / URTEAN*
* 30 urte betetzearen automatikoki bazkideztza
aruntza izatera pasako da.

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaue Kultur Elkartea
eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdiko, etabar
bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta altorpenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herriarrei, aldizkaria astero posta
arruntez jaso aukera.

3 modu dituzu bazkide egiteko:



Bete beheko
inprimakia eta
bulegora ekarri



Webgunearen bidez
noaue.eus/bazkidetu



Telefonoz
943 360 321

Izena

Abizenak

Nortasun agiria

Helbidea

Herria

Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia (IBAN)

Bazkideztza mota

☐ Arrunta (40 €) ☐ <30 urte (25 €)

Jaiotze data

noaue.eus

Emakumeen Egunari lotutako bertso-saiorako txartelak salgai

Kalezarko Pelaioenean egoitza izango duen Emakumeen Etxeko talde sustatzaileak egitasmo honi buruzko asanblada irekia deitu du martxoaren 4rako eta bertso-bazkaria segidan Artzabalen. Otordurako txartelak salgai jarri dituela ohartarazi dute. Horrekin batera, argitu nahi dutenez, egun horretako ekintza bakoitzean parte hartzeko, izena eman beharko da. Bestela esanda, hitzordu bakoitzak bere izen-emate propioa izango du.

Martxoak 4, larunbata

■ 12:00 Emakumeen Etxeari lotutako asanblada irekia Potxoenean.

■ Izen-ematea aurrez, bideo-tatik: 943 377 110

■ parekidetasuna1@usurbil.eus

■ Segidan, bertso-bazkaria Artzabalen. Parte hartzaileak: Maialen Lujanbio, Jone Uria eta Saioa Alkaiza. Gai-jartzaila: Amaia Agirre.

■ Sarrera: 22 eurotan Artzabalen eta Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailaren bulegoan, 15 eurotan ikasle, langa-



Maialen Lujanbio eta Jone Uriarekin batera Saioa Alkaiza arituko da kantuan martxoaren 4ko bertso-bazkarian.

UDALAREN OHARRA

“Hitzordu bakoitzak bere izen-emate propioa du. Asanblada irekia batetik, bertso-bazkaria bestetik. Asanbladarako izena emateak ez du otorduko tokia ziurtatzen”

betu eta jubilatuentzat.

■ Antolatzailea: Udalak.

“Zaintzaren iruditeriak literaturan”

Zaintza ekosistema eredu propioaren eraikuntzan, azaroaz

geroztik gai honi buruzko hitzaldi bat antolatzen ari dira. Otsailari dagokiona, ostegun honetan, hilaren 16an, 18:00etan Potxoenean hizlariok: Miren Amuriza, Uxue Alberdi, Katixa Agirre eta Iratxe Retolaza. Hitzordurako izena aurrez bideratu ahal da usurbilkultura.eus plataforman.

Datorren mahai-inguruan parte hartuko duten idazleen sortze-lanak Sutegi udal liburategian dituzuela gogorazi digute egunotan bertako arduradunek.

Lertxunditarrak eta Estevez-Salegi nagusitu ziren EHko Mus Txapelketako kanporaketan

Euskal Herriko Mus Txapelketako XIV. edizioko herri mailako kanporaketa jokatu zuten aurreko asteburuan Aitzaga elkartean. Bi izan ziren Saizar eta Aginaga sagardotegiek eta Bruño marisko etxeak lagundutako hitzorduan Gipuzkoako finalerako sailkatu ziren bikoteak; Joxe Mari Lertxundi eta Koldo Lertxundi aita-seme txapeldunak eta bigarren postan sailkatutako Txetxu Estevez eta Xabier Salegi.

Herrialde mailako finala martxoaren 11n jokatu dute. Eta bertan puntuazio onena eskuratzen dutenek, martxoaren 25ean Zornotzan (Bizkaia) antolatu duten nazio mailako finalera igaroko dira.



Aitzaga elkartean jokatu zen herri mailako kanporaketa.

Txirikordan izen-emateko aukera zabalduta berri dute

Aurreikusitako moduan, Usurbilgo Udalak Ugartondoko Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioan izen-emateko epea ireki du. Otsailaren 28an amaituko da aukera.

“Txirikordako esleipen prozedura abiatzea eta eskubidea aurkezteko epea” ireki duela berri eman zuen Udalak otsailaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, “Ugartondoko Txirikorda eraikinean belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioen baremazio eta esleipen prozedura erregela-



Txirikordaren inguruko irudia, maketa batetik jasoa.

menduan jasotakoaren baitan”. Araudi hau urriko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak.

Guztira 16 bizileku osatuko da etxebizitza komunitarioa Interesdunek “20 egun natu-

ral izango dituzte eskaerak aurkezteko”. Udalak zehaztu duenez, otsailaren 28ra arte. GAO-ren iragarkian eskura dituzue adin tartearen arabera bete beharreko eskabide orria. “Izena ematen dutenen artean, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da epea amaitzen denean, eta alegazioak aurkezteko tarte ere izango dute”, ohartarazi du Udalak.

Gogoan izan, Txirikordak guztira 16 bizileku izango ditu. 4 bi logelakoak izango dira, gainerakoak logela bakarrekoak.

“Emakumeen izenak eta lorpenak ezagutzen baditugu, iruditeria maskulinizatu hori aldatzen hasiko gara”

Ilazki Gainza Kalaka kooperatibako kide da eta egunotan EmariAPP aplikazioa plazaratu dute. Emariak izeneko liburuxka kaleratu zenuten duela urte batzuk, ondoren karta-jokoa etorri zen eta orain mugikorrerako aplikazioa aurkeztzen ari dira han eta hemen.

NOAUA! Nerea Uriarekin bate-ra eta Kalaka kooperatibaren eskutik, Emariak izeneko liburua plazaratu zenuten duela urte batzuk. Emakumeek historian zehar egin dituzten ekarpenen bilduma modukoa. Liburu horretan oinarritzen da EmariAPP aplikazioa?

Ilazki Gainza: 2017an Emariak liburua atera genuen, gerora karta-jokoa eta aurten aplikazioa. Hiru euskarri horiek agerian uzten dute emakume erreferenteak falta zaizkigula. Arlo guztietan gizonezkoen berri badugu eta izan dugu, baina emakumeen kasuan, oraindik askoren berri izatea falta dugu. Gehienbat, egunerokoan emakume horiek gure egitea falta zaigu. Komunikabideen, liburu eta jolasen bidez badakigu emakumeen presentzia garrantzitsua dela eta gizartearen horren alde egiten dugu, baina gero kirolari edo zientzialarierantz pentsatzen dugunean, edo dena delako arloan, gizonak etortzen zaizkigu burura le-



Ilazki Gainza eta Nerea Uria Kalaka kooperatibako kideak dira eta EmariAPP aplikazioa aurkeztu berri dute.

EMARIAPP

“Jolas honen bitartez, egunero emakume erreferente baten bizitzaren inguruko pistak irakurri eta nor den asmatu beharko duzu”

hendabizi. Gure iruditeria gizonen iruditeria da azken finean. Hiru euskarri hauen helburua da iruditeria hori zabaltzeko informazioa eskura jartzea. Emakumeen izenak eta lorpe-

nak ezagutzen baditugu iruditeria maskulinizatu hori aldatzen hasiko gara pixkanaka. Errealitatea zabalduko zaigu.

2017an plazaratu zenuten liburua hortaz, aplikazio berri honetan du isla. Aplikazioaren ekarpena ordea askoz zabalagoa da, ezta?

250 emakume bildu ditugu datu-basean eta horien erdia baino gehiago euskaldunak dira, zazpi herrialdeetakoak. Gainontzekoak nazioartekoak dira. Egia da liburuan agertzen diren emakumeak ere azaltzen

direla, baina aplikazioan askoz gehiago daude. Arlo eta garai ezberdinetako emakumeak dira, eta helburua da emakume gehiago batzea datu-basean. Gure lana emakumeak txertatzen joatea da eta aplikazioan edonork aukera izango du emakumeak proposatzeko. Herriko norbait, zerbait berezia egin zuen emakumeren bat, oztupoak izan dituen norbait helburuak lortzeko... Informazio pixka bat dutenei eskertuko genieke bide horretatik bidaltzea eta denon artean datu-basea osatzea.


IOS zein Android gailuetarako

NOAUA! EmariAPP aplikazioa eskuratzeko zer egin behar da? Nola ipini dezakegu gure mugikorrean?

Ilazki Gainza: Aplikazioa IOS zein Android gailuetarako sortu eta garatu da. Beraz, edozein mugikor eta tabletetik App Store edo Google Playra sartu, eta bilatzailan

Emariapp jarrita, berehala agertzen da. Deskargatu eta gailuetan izango dute. Erabat doakoa da.

Bestela, emariapp.kalaka.eus web orrialdera jotzen baduzue, bertan eskuragarri topatuko dituzue IOS zein Androidentzako lotura zuzenak, deskargatzeko moduan.



“250 emakume bildu ditugu EmariAPP aplikazioaren datu-basean”.

“Helburua argia da: emakumeak plazaratu, haien berri eman eta egunerokotasunean txertatzea”

NOAUA! Liburuak izan zuen harreraren ondorioz, karta-joko bat ere atera zenuten. Aplikazioa dator orain. Zein izan da euskarazko aplikazio hau sustatzeko helburu nagusia?

Ilazki Gainza: Liburuak oso harrera ona izan zuen. Esker oneko mezuak jaso genituen euskaraz horrelako zerbait sortu izanagatik. Ondoren, buelta batzuk eman genizkion kontuari. Jolasaren bitartez errazagoa iruditzen zitzaigun, etxean edo oporretan, eskura izatea eta karta-jokoa behin baino gehiagotan erabiltzeko produktua zela iruditu zitzaigun. Horrela, iruditeria horretan emakumeak sartzea posible zela iruditu zitzaigun.

Aplikazioarena iritsi da orain. Egunerokoan, denerako erabiltzen ditugu aplikazioak: kirola egiteko, kaloriak zenbartzeko, elikagaien proportzioak kalkulatzeko... baina baita jolasteko ere. Beste bi proiektuen bidetik, mugikorretarako saltoa egitea erabaki genuen. Helburua liburu eta karta-jokoaren berbera da: emakumeak plazaratu, haien berri



Aplikazioa jolas bat da baina funtzio pedagogiko bat ere betetzen du.

ILAZKI GAINZA

“Astean bost emakume dira asmatu beharrekoak, astelehenetik ostiralera, egunean bat aterako zaio erabiltzaile bakoitzari”

izan eta egunerokotasunean txertatzea. Jolasa da, egunean emakume bat asmatu behar da modu aleatorioan eta zure lagunei ez zaie emakume bera tokatuko arrazoi horrengatik. Badu xarma hori ere.

EmariAPP aplikazioak alde

ludikoan gehiago sakontzen duela esan daiteke. Dena den, liburuak eta karta-jokoak bazuten funtzio pedagogiko bat. Aplikazioak ere ildo bera segiko du, ezta?

Bai, hori da. Aplikazioak ere alde ludiko hori lantzen du. Liburuak ere bazuen azken orrialdeetan ariketatxo batzuk jolasetik abiatuta, ikusteko ikasitako hori ea barneratuta zegoen. Karta-jokoa ere jolas bat da bere horretan eta aplikazioa ere hortik doa. Astean bost emakume dira asmatu beharrekoak, astelehenetik ostiralera, egunean bat aterako zaio era-

biltzaile bakoitzari. Aste osoan zehar izango da erantzuteko aukera. Hau da, astelehenean erantzun ez duenak astear-tean bi izango ditu erantzuteko edo asteburuan aste horretako emakumeenak segidan egiteko aukera izango du. Bakoitzak nahi bezala antolatzeke aukera izango du. Egun bakoitzean emakume bat eta bost pista izango ditu jokalaria bakoitzak gehienez. Gehienez ere, minutu eta erdi izango du pertsona bakoitzak erantzuna emateko. Lau emakumeren artean erabaki beharko du bakoitzak pista horiek irakurri ostean nor den. Helburua da egunerokoan tarte txiki bat eskaintzea horri ikasteko intentzio horrekin eta interesa piztuko duen zerbait izan dadila. Euskaldunak eta nazioartekoak izango dira tartean eta egun bizirik dauden emakumei garrantzia berezi eman diegu. Badirudi hilda egon behar duzula zure lorpenak balioan jartzeko. Norberari interesatzen zaionaren arabera batzuetan asmatuko du eta besteetan ez, baina saltsa hori jartzea da asmoa.

“Emakundek homologatutako aholkularitza gara”

NOAUA! “Jendarte parekidean bizi ahal izateko tresnak sortu eta zerbitzuak eskaintzeko” jaio zen Kalaka kooperatiba. Zer nolako zerbitzuak eskaintzen dituzue gaur egun?

Ilazki Gainza: Gaur egun berdintasun plan ugari egiten ari gara udaletan, eskoletan, enpresetan... Emakundek homologatutako aholkularitza gara. Bestalde, formakuntza jarriak egiten ari gara eskoletan, hezkidetzaren ildotik irakasle eta ikasleekin eta udaletan zeharkakotasuna

txertatzeko formakuntza eskaintzen ari gara. Berdintasun sailak ardura guztia hartu beharrean, arlo guztietako ki-deak ere konturatu daitezkeen berdintasunak denean eragiten digula eta garrantzitsua dela denok ikuspegi berbera izatea oinarri modura. Azkenik, zerbitzu potoloa eskaintzen dugu sensibilizazio kanpainak garatzeko. Berdintasun sailekin ari gara, batik bat, sensibilizazio kanpaina hauek lantzen. Logoak sortu izan ditugu berdintasun kontseilu-entzako edo emakumeen etxe-entzako. Ho-

rrekin batera iruditeria osoa. Martxoaren 8ko kanpaina delako edo azaroaren 25erako edo besterik gabe erabakitzen dutelako egoera zehatz baterako beharra dagoelako. Diseinu grafikoa lantzen dugu eta harremana dugu hornitzaileekin ahalik eta zerbitzurik osoena eskaintzeko sailei. Berdintasun sailekin aritu gara batez ere, euskara sailekin ere bai, eta azken aldiak, merkataritza sailekin ere ari gara lanean. Sestaon indarkeria matxistaren aurkako kanpaina bat landu dugu herriko merka-

tariak horretara atxikitzeko eta ikusgarritasuna emateko. Leloa eta irudia sortu genituen guk eta euskarriak sortu genituen. Hiru zerbitzu horiek dira guretzat potoloenak, gaur egun. Baditugu gure perlak ere, oraingoan aplikazioa dena. Ilusio handia egiten digute horrelakoek ere. Liburu eta karta-jokoa autoekoiztiak izan dira, eta oraingoan aplikazioa babesleekin egin dugu: Emakunde, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin.

Pagazpe, neska gazte pilotarien topaketan

Gipuzkoako Euskal Pilota Federaziotik berri eman dutenez, neska gazte pilotarien topaketa antolatu zuten otsailaren 5ean Alegian. Guztira, 47 bat kirolari gaztetxo elkartu zituzten. Hiru kategoria hauetakoak; benjamin, alebin eta infantil mailetakoak. Eta hainbat herrietakoak; tartean, Usurbilgo Pagazpe elkartekoak.

Eta Pagazpekoekin batera, Gipuzkoako herrietako ordezkariak: Abantzu (Zestoa), Azkoitiko, Behar Zana (Amasa-Villabona), Beloki (Zumarraga), Gazteleku (Andoain), Gaztelupe (Zaldibia), Ilunpe (Azpeitia), Intxurre (Alegia), Mundarro (Astigarraga), Murumendi (Beasain), Ospele (Orio), Txulobi (Aduna), Zizurkil eta Zumaia.



Otsailaren 5ean 47 pilotari batu ziren Alegian. Tartean, Pagazpe elkarteko hainbat pilotari.

TOPAKETAK

Antolakuntzatik aurreratu dutenez, martxoan beste topaketa bat egitekoak dira

Topaketan bildu zirenek "klubetako pilotariak entrena-

mendu jolasekin, ariketekin, partidatxoekin... disfrutatze-ko aukera izan zuten, eta giro polita sortu zen" azaldu dute Gipuzkoako Euskal Pilota Federaziotik. Antolakuntzatik aurreratu dutenez, "martxoan beste topaketa bat antolatzea da asmoa".

Bolo txapelketan garaile

Hilabete hasieran Zeraingo bolatokian jokatu zen Gipuzkoako Binakako Bola Txapelketan herrikide bat nagusitu zen. Gizonezkoenean, Amasa-Villabonako Behar Zana Elkarteko Bola Taldeko kide Joxe Mari Etxebesterekin batera, Mikel Arroio usurbildarra. Talde bereko kideak nagusitu ziren emakumezkoen artean; Aitziber Ugaldetxe eta Beatriz Unzu.



Mikel Arroio eta Joxe Mari Etxebeste Gipuzkoako Binakako Bolo Txapelketa irabazi dute.



Aginaga Winter Series txapelketan izena emateko epea amaitzean da

Pala txapelketa hau mistoa izango da eta Aginagako Hariztitxon jokatu da. Martxoan hasiko dira partidak baina alde aurretik eman behar da izena Arrate tabernan. Otsailaren 17an amaituko da epea.

■ Antolatzaileen esanetan, "edozein modutara izan daiteke bikote: bi gizonezko, bi emakumezko, gizon-emakume,..."

■ Jatorriari dagokionez, aginagarra edo usurbildarra izan behar da eta bikote bakoitzeko federatu bakarra onartuko da.

■ Adina: gutxienez 16 urte beharko dira parte hartu ahal izateko.

■ Teniseko pilotarekin jokatuko da.

■ Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

■ Finala: martxoaren 25ean Aginagako Hariztitxo frontoian, 18:00etan hasita. Ondoren, Eliza Zaharrean sari banaketa eta parte hartzaileen artean zozketak.

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaia.eus

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683 548 749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Garaje itxia salgai herri sarrean. 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

Munalurra 4 zenbakian lokal

bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lanaldi erdian (goizetan) etxeko lanak egiten aritzeko pertsona baten bila nabil Zubietan 695783202.

Laukote okindegian langile bat behar dugu lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona:

680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak eman-go dizkion pertsona baten bila gabilta. 608201745

Klase partikularrak emateko prest dauden zerrenda osatzen ari da Udarregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga sagardotegian, urte osoan zehar astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega ja-

tetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsaldeko haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil.

688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanean zein igeltsaritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdutuen Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Paretetik bueltan jantzitza genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzitza eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.



Zorionak Unax eta Malen! Dagoeneko 7 urte bete dituzue. Jarraitu horrelako jatorrak izaten. Muxu handi bat aitatxo eta amaxoren partetik.



Zorionak Arai! Gure printzesak 6 urte beteko ditu!! Zorionak Arai!!! Ederki ospatuko ditugu.

Eskubaloit partidak

Oiardo kiroldegian:

Otsailak 18, larunbata

■ Senior mutilak, 12:15:

- Usurbil KE
- Indupime Basauri

Artaleku kiroldegian,

Irunen:

■ Jubenil mutilak:

- CD Bidasoa Irun
- Usurbil KE

*Eguna eta ordua zehazteke.

Heriotzak

Jexux

Iparragirre

Alkorta

Otsailaren

7an hil zen Zubietan, 81 urterekin.

**Heriotzak**

Arantza

Aizpurua

Urdampilleta

Otsailaren

13an hil zen Zubietan, 89 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 17 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 18 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Osteguna 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 25 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 26 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda otsaila

16 osteguna

- **Zaintza hitzaldi zikloa: 'Zaintzaren iru-diteriak literaturan'.** 18:00 Potxoenean. Hizlariak: Katixa Agirre, Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Iratxe Retolaza.
- **Usurbilgo Jai Batzordearen bilera.** 18:00etan Potxoenean.

17 ostirala

- **Inauteri Festa: Udarregi ikastolan.** Ikus azpiko albistea.
- **Inauteri Festa: 'Adunako Axeri dantza' ikuskizuna.** 19:00 Orbeldi eta Zumarteren eskutik, kiroldegitik abiatuta. 20:00 emanaldia frontoian.

18 larunbata

- **Inauteri Festa** 12:30 Orbeldirekin dantza frontoian. 12:30-14:00 Joaldunak kalean zehar. 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira. 23:00 Fun&Go frontoian.

Inauteri giroaz gozatzeko hamaika aukera ditugu asteburu honetan

Aurtengo Inauteri Festak kutsu zinematografikoa izango du. Hori izan baita proposamenen artean hautatua izan den gaia. Larunbateko mo-zorro festaren aurretik, 'Adunako Axeri dantza' ikuskizuna eskainiko dute Orbeldiko dantzariak eta Zumarte Musika Eskolako ordezkariak.

Otsailak 17, ostirala

Udarregi Ikastola

- 10:30 HHkoen dantza saioa Mikel La-boa plazan.
- 11:00 DBHko eta LHko ikasleen desfilea kaleetan zehar.
- 11:45 DBHkoen dantza ikuskizuna Kiroldegian.
- 15:00 LHkoen dantza ikuskizuna Kiroldegian.

Kiroldegiko emanaldietarako oharrak:

- Ikus-entzuleak zelai ondoko arrapalatik sartuko dira.
- DBHko ikuskizunerako sarrera librea izango da.
- LHko ikuskizunerako ikasle bakoitzari txartel bat emango zaio. Soberan daudenak udarregi.eus bidez eskuratu beharko dira, eta egunean bertan jaso 12:30-14:30 artean ikastolako idazkarriz.



Orbeldik 'Adunako Axeri dantza' eskainiko du ostiral honetan, 20:00etan frontoian.

Orbeldirekin, Axeri dantza

- 19:00 Orbeldi dantza taldea eta Zumarte musika eskolarekin, 'Adunako Axeri dantza' kiroldegitik abiatuta.
- 20:00 Emanaldia frontoian.
- Antolatzailea: Orbeldi dantza taldea.

Otsailak 18, larunbata

Inauteri Festa

- 12:30 Orbeldirekin dantza frontoian! Mozorrotu eta etorri dantzara!
- 12:30-14:00 Joaldunak kalean zehar.
- 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.
- 23:00 Fun & Go plaza taldearen kontzertua frontoian.
- Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkar-tea.

Datozenak

LH 5-6ko multikirolaz hausnarketa prozesua

Udalak LH5-6 mailakoen multikirolaren inguruko hausnarketa abiatuko du: hiru saio izango dira, guztira. Bigarrenengoan, Usurbilgo errealitatea izango dute aztergai. Otsailaren 22an asteazkena, 18:00etan Potxoenean.

"HerrimaMITUZ" Aginagan

"Herrian herriko pasarteak kontatu eta gai bihurtuz, gure herrien mamia, bertsoz azaleratzeko ariketa jolastia" da HerrimaMITUZ emanaldia, otsailaren 26an 18:00etan Aginagako Eli-za Zaharrean iragarri dutena, Andoni Egaña eta Iñigo Mantzizidor "Mantxi" bertsolariekin eta Xabier Alberdi historialariarekin. Ekitaldirako sarrerak 5 eurotan aurrez eskuragarri, usurbil-kultura.eus plataforman.

Emakumeen Etxea, asanblada irekia

Martxoak 4 larunbata, eguerdiko 12:00etan Potxoenean. Talde sustatzaileak egindako lanaketaren berri emango da eta ondoren bertso bazkaria izango da Artzabalen. Bertsolariak: Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio eta Jone Uria. Txartelak Artzabalen bertan dituzue eskuragarri.

Artzi
barkariak EGUENERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

URDAIRA

Sagardotegia

AGINAGA

943 37 26 91

astelehenak itxita



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 7ra
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian Irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

Tfn-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sanarra

Tel: 943 365 031

Santuenea





Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- **0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.**
- **Hezkuntza Integrala:** Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- **Hezkuntza eredu propioa:** Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen- erritmo eta behar espezifikoak aintzat hartuz.
- **Baso eskola:** basoa gela bihurtzen da. Espazioa eta bertan aurkitzen diren naturako elementu guztiak ikasteko baliabide dira.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa** auzo eta herrietara: Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **ZIRIMARA aisialdi Proiektua eta eskolaz kanpoko jarduerak:** kirolak, dantza, xake eta an-tzerkia.
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

55 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Otsailaren 13tik 24ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6
LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12
DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.eus